

**auzo auzo • auzo auzo • auzo auzo**

**intxaurrondo**

# Otxoki pasealekua lanetan

**Intxaurrondo ikastola** zaharreko lokalak, Letaman izenez ezagutzen direnak, auzoaren erabilpenarako lokalak bilaka daitezke. Alkateak hasera batean plaza bat eraikitzeko asmoa bazuen ere, badirudi lokal horiek aprobetxatzeko asmoa duela, auzoko jendeak erabiltzeko egokituz. Hala ere, oraindik ez dira lokalak ukitu eta ez da lanik egin bertan.

Bestalde, gogoratu ikastola berriaren inaugurazio ekitaldia igandean egingo dela aste osoan kultur ekitaldiak izan ondoren. Gaur ostirala rock kontzertua izango da Mugatik Out eta Tkak taldeekin. Bihar larunbata, haurren eguna izango da, goizez olinpiadak eta arratsaldez, Takolo, Pirrux eta Porrox pailazoak Gabriel Zelaia plazan. Igandean Artzak-Ortzeok elkartearekin batera egingo da jaia.



Hipermerkatuaren eta inguruko bidesarearen obrak izugarriak dira.

**e**torkizuneko Eroski supermerkatuari begira, Otxoki pasealekuaren

amaieran -barianteko sarre-  
ran- egokitze lanak hasi  
dira. bertako bihurtune

zabaltzen ari dira eta aurki, Eroski supermerkatua zuzenean iristeko karril bat zabalduko dute. Errepide berriarekin, gure auzoa zuzenean jarriko da harremanetan Martutenerekin. Garberatikhasi eta Martuteneko 27. poligonoraino iritsiko da bidea. Bestalde, supermerkatuak hurbilduko den jendetza aurkisiz, glorieta bat eraikitzeko asmoa dago. Beraz, glorieta etorkizuneko ibilbidea eta egungo zatiketa saihesteko asmoz egingo da. Eroski supermerkatuak, 1997an zabalduko ditu ateak ziurrenik.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

**altza**

## Altza Interneten

**Ipuinaren ordua** izeneko saila hasi dute berriro ere Larrotxene Kultur etxean. Ipuin kontaketa hau 9 urte bitarteko haurrentzat da eta Lamiak taldeak egiten ditu kontaketak ostiralero 18.00etatik aurrera.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

**a**ltzako Historia Mintegiak argitaratzen duen Estibaus aldizkariak bere azken alea argitaratu berri du eta bertan, Altzanez proiektu berriaren berri ematen digu Antton Alfarok. Hemendik aurrera, Internet sare telematikoaren erbiltzaileek Altzari buruz-

ko informazioa eskuratu ahal izango dute Altzako Historia Mintegiak daukan Web orriaren bitartez (<http://www.eusnet.org>). Orri honetan Altza eta Altzako elkarten informazioa aurkitu daiteke.


Hala ere, Altzanez proiektuak aurrerago joan nahi du

eta hau lehen pausu bat baino ez da. Informazio sarea bertako elkarte guztietara zabaldurik nahi dute eta horretarako helbide zibernetiko bat eskuratu dute: [altzakom@eusnet.org](mailto:altzakom@eusnet.org). Informazio gehiagorako, 35 30 80 telefonora deitu.

LARRAIZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

**KANTU  
LIBURUSKA**

100 pezeta  
bakarrik  
balto du!!



**Zure afari, bazkari,  
bidaia eta lagun  
giroetan  
lagunduko dizun  
liburuxka praktikoa.**

**herrera**

# Txirrindaz Lau Haizetara

**h**errerako Mendi-Zaleak mendikarteak igande honetarako, hilak 20, IV Mountain Bike-Lau Haizeta lasterketa antolatu du.

Goizeko 9.30etan hasikoden froga honetan 600 bat txirrindularik hartuko dute parte antolatzaileen ustetan.

Honakoa izango da ibilbidea: Herreratik irten eta Lau Haizetatik barrena San Markosera igoko dira. Lasterketaren punturik altuena Txoritokieta izango da (300 m). Floreagako aldapa igo ondoren, berriro ere San Markosera aparkalekura itzuliko dira. Hemendik hainbat basabidetan ibili eta gero Larratxoko bidea hartuko dute Herrerara bueltatzeko.

Lasterketan txirrindulari askok parte hartuko duenez, lanean ere jende askok aritu beharko du. Mendi Zaleak elkarteak honako laguntzaille aurrikuspena egin du iganderako: lasterketa jarraitzeko 12 lagun; lasterketa aurretik doazen motorretan 5 lagun; 10 udaltzain; bide gurutzeetan 40 pertsona; horniketara kontutarako beste hamar bat lagun eta anbulantziaren bat.

## Laugarren urtea

Mountain Bike-Lau Haizeta lasterketa 1993. urtean



egin zen lehen aldiz eta lehenengo edizio honetan lortutako arrakasta ikusirik aurrera jarraitzea erabaki zuten. 1994. urtean lasterketa hau Gipuzkoako BTT Federakuntzaren egutegian

sartzea lortu zen eta orduz geroztik, urtez urte partehartzaile kopuruak gora egin du: 325, 420 eta aurtengoan 600 bat pertsonen parte hartuko dutela aurrikusi dute.

Izen ematea 1.000 peze-

taren truke egin daiteke eta federatuek 200 pezetako beherapena izango dute. Informazio gehiagorako deitu 39 11 74 telefonora.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



## Tiro-lekua desagertu da

**Auzoak sekulako lasaitasuna hartu du tiro instalazioak bota eta gero. Udalak hartu berri duen erabakia askotan eskatu zuten auzokideek eta azkenean bete da beren eskaera. Berdegunea eta aisirako leku berria izango dituzte laster Bidebietarrekin. Bidebietako tiro instalazioak ez ziren aspaldian erabiltzen baina droga eta zabor leku izugarria ziren.**



Zure argazkidenda

*Diyok*

Kolon pasealekua, 10 • ☎ 28 41 88 DONOSTIA



## San Carlos Borrromeo

Kontsumo Kooperatiba

KONFEKZIOA - LENTZERIA  
UMETXOAK  
Oartzun, 7  
Tfnoa.: 28 45 47

JOSTAILUDENDA  
Errenderi, 10  
Tfnoa.: 27 61 84